



**1/2021 TXOSTENA, URTARRILAREN 19KOA, KONTRATAZIO
PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN BATZORDE
IRAUNKORRENA.**

**XEDEA: DEKRETU-PROIEKTUA, EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILAREN EGITURA
ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA EZARTZEN DUENA.**

I.- AURREKARIAK.

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administraziozko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) –abenduaren 28ko 48/2020 Dekretuaren bidez aldatu zen– honako hau ezartzen du 8. artikuluan:

"1.– Egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkio Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari:

- a) Industria-politika eta enpresa-lehiakortasuna.*
- b) Berrikuntza eta teknologia*
- c) Euskal gizartean Informazioaren eta Jakintzaren Gizartea sustatzea eta garatzea, hargatik eragotzi gabe administrazio eta gobernu elektronikoaren arloko jarduerak.*
- d) Industria eta enpresa nazioartekotzea.*
- e) Gobernuaren politika proposatu eta gauzatzea eraldaketa digitalerako eta adimen artifiziala garatu eta sustatzeko.*
- f) Energia eta meatzeak.*
- g) Artisautza sustatzea eta indartzea.*
- h) Nekazaritza eta abeltzaintza sustatzea eta antolatzea.*
- i) Landa-garapena eta haren dibertsifikazio ekonomikoa.*
- j) Abeltzaintza eta mendiak.*
- j bis) Animalien babesa.*
- k) Ehiza eta arrantza kontinentalak.*
- l) Arrantza.*



- m) Nekazaritzako, arrantzako eta elikagaigintzako industriak eta merkaturatzea.*
- n) Basogintzako lehen transformazioko industriak.*
- o) Nekazaritzako elikagai-politika: nekazaritzako elikagaien sustapena, tipifikazioa, jatorri-deitura eta kalitate-kontrola.*
- p) Mahastizaintza eta enologia.*
- q) Nekazaritzako eta itsas arrantzako prestakuntza, dekretu honen 10.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera. Nekazaritzako eta itsas arrantzako lanbide-gaitasuna sustatzea. Nekazaritza- eta ozeanografia-ikerketak, dekretu honen 10.1.c) artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe.*
- r) Trantsizio energetikoa.*
- s) Ingurumena. Klima-aldaketaren aurkako borroka.*
- t) Ekonomia zirkularra.*
- u) Natura-ondarea kontserbatzea.*
- v) Urak. Ubideak eta ureztatzeak.*
- w) Baliabide naturalen antolamendua eta naturaren kontserbazioa.*
- x) Portuak eta itsas gaiak.*
- y) Sailari atxikita dauden edo haren mendeko diren sektore publikoko entitateak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera.*
- z) Legeek eta erregelamenduek eman diezazkioten gainerako ahalmenak.*

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak hauxe dio azken xedapenetatik lehenengoan: "Sailburuek, Jaurlaritzari buruzko Legearen 26.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, 2020ko abenduaren 31 baino lehen, euren sailei dagozkien erregelamendu organikoen proiektuak aurkeztuko dizkiote lehendakariari, onarpena eman diezaien. Proiektu horiek Gobernu Programan sailei izendatutako jardun-eremu bakoitzerako aurreikusitako helburuetara eta printzipio gidarietara egokitu beharko dira.

Erregelamendu horiek honako antolamendu-irizpide hauei jarraituko diete: austeritatea, egiturak lautzea, eduki zabaleko arlo funtzionalak elkartzea, egiturazkoak ez diren staff arlo funtzionalak identifikatzea eta informazioaren teknologiak ahalik eta gehien aprobetxatzea".



Hortaz, dekretu-proiektua egitea sustatu da, Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko, eta horren bidez, 8. artikulua horretan esleitutako arloei dagozkien eginkizunak gauzatu ahal izateko.

2020ko abenduaren 21ean, sail horrek eskabide bat aurkeztu zuen, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak dekretu-proiektuari buruzko txostena egin zezan.

Prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetutako espedientean (erreferentzia: DNCG_DEC_109264/20_05), honako agiri hauek agertzen dira:

- Agindua, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez erabakitzen baita hasiera ematea Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren erregelamendu organikoa egiteko prozedurari.
- Agindua, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez erabakitzen den alde aurretik onartzea Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionalari buruzko dekretu-proiektua.
- Dekretu-proiektuaren testua.
- Azalpen-memoria eta memoria ekonomikoa.
- Saileko Aholkularitza Juridikoaren txostena.

II.- ESKUMENA.

Txosten hau Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eman behar du, nahitaez, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoak (aurrerantzean, 116/2016 Dekretua), 27. artikulua a) letraren 1. apartatuan ezarritakoari jarraikiz, xedapen orokorraren edukiak, zati batean, kontratazio publikoaren eremuko alderdiei eragiten baitie, eta ondorioz, Gobernu Kontseiluari baitagokio hura onartzea.



Kontuan hartu behar da Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren Aginduak, zeinaren bidez erabakitzen den Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren erregelamendu organikoa egiteko prozedura hastea, laugarren ebazpen-zatiko 3. puntuan ez duela behar bezala adierazten kontsulta-organo horren izena, adierazten baitu nahitaezko txostena egin behar duela "[...]Kontratazio publikoko aholku batzardeak [...]".

Bestetik, eta 116/2016 Dekretuaren 30. artikulua 2. apartatuaren a) letraren arabera, egitura organikoak eta funtzionalak arautzeari dagokionez, Aholku Batzardeari dagokion aholkularitza-eginkizuna Batzarde Iraunkorrek beteko du.

Irismenari dagokionez, txosten honetan sektore publikoko kontratuen araubide organiko eta juridikoari eragiten dioten dekretu-proiektuaren esparruak jasotzen dira soilik; izan ere, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzarde honek kontratazio publikoaren gaineko eskumenak ditu bakarrik. Horiek horrela, honako hauek aztertuko dira:

III.- KONTRATAZIOAREN ARLOAREKIN LOTUTAKO ESPARRUAK:

Ondoren, proiektuan jasotako esparru guztiak transkribatuko dira:

"3. artikulua. – Sailburua.

[...]

e) Saileko Kontratazio Organo gisa jardutea, 5.000.000 eurotik gorako lizitazio-aurrekontua duten kontratuetan.

Halaber, baldintza berberetan, sailaren eskumena izango da bitarteko propioei enkarguak egitea, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren Araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren IV. tituluaren aurreikusitakoari jarraituz.

[...]

5. artikulua. – Zerbitzu Zuzendaritza.



[...]

f) Kontratazio-espeditentak eta baliabide propioei eta zerbitzu teknikoari egindako enkarguak izapidetzea.

[...]

2.- Zerbitzu-zuzendaria izango da sailaren kontratazio-organoa, 5.000.000 euroko eta hortik beherako lizitazio-aurrekontua duten kontratuetan, eta, baldintza berdinetan, eskuduna izango da baliabide propioei enkarguak egiteko, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren Araubidea ezartzeko ekainaren 27ko 116/2016 Dekretuaren IV. tituluan aurreikusitakoari jarraituz. Bi kasuetan, gastuak baimentzea dagokio. Era berean, bere jardun-eremuan sartutako espeditentetatik eratorritako gastua baimentzea dagokio, baimen hori beste organo baten eskumena denean izan ezik.

[...]

14. artikulua. – Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza.

[...]

h) Portu berriak eta portu-azpiegitura eta -ekipamendu berriak eraikitze edo handitzeko proiektuak onartzea.

[...]

p) Saileko gainerako zuzendaritzek eskatuta, proiektuak ikuskatzeko bulego gisa jardutea eta proiektuak idazteko eta obrak zuzentzeko laguntza teknikoa ematea.

q) Gainontzeko sailek eskatuz gero, eraikuntzakoak ez diren herri-lanen proiektuak eta kontratuak egiteko laguntza teknikoa ematea.

116/2016 Dekretuaren 6. artikulua haxe ezartzen du: «Administrazio Orokorrean, hura osatzen duten sailen titularrak izango dira kontratazio-organoak [...] salbu eta besterik xedatzen ez bada egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretuetan [...]».



Eskumen hori erabiliz, dekretu-proiektuak honako xedapen hauek jasotzen ditu:

- 3.3.e) artikulua Ekonomiarekin Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari esleitzen dizkio kontratazio-organoari dagozkion eskumenak, lizitaziorako oinarritzko aurrekontua 5.000.000 eurotik gorakoa duten kontratuetan.
- 5.2. artikulua xedatzen duenez, zerbitzu-zuzendariari dagokio kontratazio-organo gisa jardutea, lizitaziorako oinarritzko aurrekontua 5.000.000 eurotik beherakoa duten kontratuetan.

3.3.e) eta 5.2. artikuluetan, kontratazio-organoari dagozkion eskumenak esleitzeaz gain, baliabide propioei enkarguak egiteko eskumena jasotzen da, muga kuantitatibo berberekin.

Artikulu horietan jasotako testuari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32. artikuluan agertzen den terminora egokitzeko, esamolde osoa "*bitarteko propio pertsonifikatuak*" litzateke. Hori 5.1.f) artikulua idazketari ere aplikatu behar zaio; izan ere, artikulu horren arabera, "*Zerbitzu Zuzendaritza*" egitura-unitateari esleitzen zaio kontratazio-espedienteen eta bitarteko propioei egindako enkarguen izapidetzea, eta "*bitarteko propioak eta zerbitzu teknikoak*" esamoldearen ordez, "*bitarteko propio pertsonifikatuak*" espresioa jarri behar da.

Aipatutako 3.3.e) eta 5.2 artikuluetan aipatzen da eskumena dela "*[...]Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzen duen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren IV. tituluan aurreikusitako moduan*". Aipamen hori zuzena da, indarrean dagoen araua adierazten baitu. Hala ere, arau-aldaketa posible bat dela-eta zehaztugabea izan ez dadin, horren ordez araudiari buruzko aipamen orokor bat egitea iradokitzen dugu, honela: "*[...] Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kontratazio-araubidea arautzen duen araudian aurreikusitako baldintzetan*".

Lehen aipatutako 5.2 artikuluan, Zerbitzu-zuzendariari dagokionez, aurreikusten da bere eskumeneko bitarteko propio pertsonifikatuei dagozkien kontratu eta enkarguei



dagokien gastua baimentzea dagokiola. Honako hau gehitzen da: "*Era berean, bere jardun-eremuan sartutako espedienteetatik eratorritako gastua baimentzea dagokio, baimen hori beste organo baten eskumenekoa ez bada*". Aurreikuspen horiek ez dira agertzen 3.3.e) artikuluan, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari dagokionez.

Hortaz, proposatzen da aurreikuspen hau sartzea 3.3 artikuluan, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuak bitarteko propio pertsonifikatuei egindako kontratu eta enkarguei buruz dituen eskuduntzak jasotzen dituen atala ez den beste batean: "[...] *Sailaren 5.000.000 eurotik gorako gastuak baimentzea, Gobernu Kontseiluaren eskumenei kalterik egin gabe [...]*".

Era berean, iradokitzen da aurreikuspen hau sartzea 5. artikuluan, Zerbitzu-zuzendariak kontratuei eta pertsonifikatutako baliabide propioei egindako enkarguei dagokienez dituen eskuduntzak jasotzen dituen atalaz bestelako batean: "[...] *"Bere jardun-eremuan sartutako espedienteetatik eratorritako gastua baimentzea, baimen hori beste organo baten eskumenekoa ez bada [...]"*.

Horrela, ez da aurreikuspen espezifikorik beharko bitarteko propio pertsonifikatuei egindako enkarguen edo kontratuen gastua baimentzeari dagokionez.

Txosten honen xede zuzena ez bada ere, baina garrantzitsua denez 116/2016 Dekretuak 2. artikuluan (eremu subjektiboa) egiten duen "*sektore publikoaren*" definizioari dagokionez, hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 7. artikulutik datorren definizio bera, honako honekin ordezkara daiteke, beharbada, dekretu-proiektuaren 2. artikulua c) letran "*sektore publikoa*" aipamena: "*Euskadiko sektore publikoko erakundeak*". Izan ere, 2. artikulua horretako beste letra batzuen edukia ere Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa da.

Kontuan hartuta esandakoa, **ALDEKO TXOSTENA** ematen zaio Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektuari, betiere dekretu-proiektu horren edukian kontuan hartzen badira txosten honetan emandako gidalerroak eta aholkuak.